

Soziolinguistika albistaria




**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika Klusterreko albistekak

Emango diguzu Soziolinguistika Albistariaren inguruko iritzia?

Soziolinguistika Albistariaren helburua soziolinguistika ezagutza profil desberdineko hartzaile ahalik eta gehienei helaraztea da. Horregatik, garrantzi berezia du irakurleek bilatzen dutena, nahi dutena eta behar dutena ahalik eta ondoen ulertzeak. Bi urtean behin galdetegi labur bat bidaltzen dugu, albistariari buruzko iritziak eta iruzkinak jasotzeko. Biziki eskertuko genizueke erantzuteko tarte hartu eta zuen ikuspegia helaraziko bazenigute.



Ikerketak

Euskaraldia eraginkorra dela erakutsi dute 2022ko ikerketaren datuek

[EUSKARALDIA] Ikerketaren datuek diotenez Euskaraldian parte hartzaileen bi herenek hizkuntza ohitura batzuk aldatu dituzte.

[Knörr Bekak, euskararen inguruan ikertzeko ikasle bila](#)

[ALEA] Arabako Diputazioak, EHUrekin lankidetzan, Henrike Knörr Beken hirugarren edizioa abiatu du. 2022ko bekaren irabazleetako batek, Anne Egañak, Gasteizko guraso euskaldunen hizkuntza politikak aztertu ditu bere lanean.

[Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa Bekaren bigarren deialdia zabalik](#)

[BORTZIRIAK] Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Euskaltzaindiarekin elkarlanean, Pello Apezetxea Zubiri ikertzaile eta euskaltzalea omentzeko bekaren lehen edizioa antolatu zuen udaberria. Proposamenak aurkezteko epea iraganik, hutsik gelditu zen deialdia...

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

[Lan munduan euskara sustatzeko Hizkelan jardunaldia Goierri Eskolan izan da](#)

[GOIERRIKO HITZA] Hizkelan VIII. jardunaldia egin dute gaur Goierri Eskolan. Urtero egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko toki ezberdinetan. Aurten Goierriera ekarri dute. Jardunaldien helburua da Lanbide Heziketa, lan mundua eta euskarazko kudeaketa uztartzea...

[Ahozko euskararen gakoak aztertu dituzte Mintzolak antolatutako mintegian](#)

[EUSKALTZAINDIA] Euskaltzaindiak bultzatzen duen Mintzola egitasmoaren eskutik, 2022an eta 2023an saritutako gradu eta master amaierako zazpi lan eta ikerketa lan monografiko bat aurkeztu dira Donostian, Akademiaren Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

[Nazioarteko Hizkuntza-politika konparatua \(Online saioak\)](#)

[TELESFORO MONZON eLAB] Txillardegi Gogoeta Gunearen helburua Euskal Herriak XXI menderako behar duen hizkuntz politikaren inguruan gogoeta egitea da. Erronka zahar eta berriei erantzuteko gai izango den hizkuntza politika. Zentzu horretan hainbat herrietan aurrera...

[Euskara planek enpresen lehiakortasunari egindako ekarpenak aztertu ditu Emunek](#)

[EMUN] Gehi ikerketa Ikerlanen, Eikan, Fagor Electronican eta Danobaten egin da eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du. Olatz Olaso Garitano eta Onintza Legorburu Larrea ikerlariak lau enpresa hauen analitiko abiatuta emaitza eta ondorio orokorrak aurkeztu...

[New minority language speakers: an approach from a Basque perspective](#)

[INSTITUTO CERVANTES] The recent academic framework of "New Speakers" has questioned assumptions about what it means to be a speaker of a minority language. However, few studies delve into why these speakers adopt certain language aspects and not others, and how some...

Liburuak eta artikulu zientifikoak

[Donostia, euskara eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikoan](#)

[HABE] Donostiako bilakaera soziolinguistiko-historikoa egiteko asmoarekin hainbat lan aurkezten da liburu honetan. Hasteko, Hizkuntzen Historia Soziala eta bereziki euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa aurkezten du Lionel Joly Charrassek...

[O valor económico do galego](#)

[OBSERVATORIO DA CULTURA GALEGA] Neste traballo do Observatorio da Cultura Galega delimitáronse e cuantificáronse, en termos de valor económico e emprego, as actividades asociadas á lingua galega. A tese principal é que a lingua ten un mercado e unha industria...

[Sur la standardisation des langues minor\(is\)ées aux XXe et XXIe siècles](#)

[OPEN EDITION JOURNALS] En particular, el objetivo de la obra Sur la standardisation des langues minor(is)ées aux XXe et XXIe Siècles es revisar cómo han sido las condiciones y la gestión de los procesos de estandarización y normalización lingüística de diversas...

[L'évaluation du système scolaire basque en matière d'apprentissage de la langue basque](#)

[OPEN EDITION JOURNALS] Cet article analyse les résultats du système scolaire de la Communauté Autonome Basque en matière de compétence linguistique en basque. En se basant sur l'étude effectuée par l'Institut Basque d'Evaluation et de Recherche Educative...

[Economics of minority groups: Labour-market returns and transmission of indigenous languages in Mexico](#)

[SCIENCE DIRECT] This study demonstrates a series of links between minority language skills, their economic return, and transmission across generations among Indigenous Mexican groups. We begin by estimating the differential in employment likelihood and wages between...

Bestelako albistekak

[Euskararen normalizazioaren aurkako oldarraldiari etena jartzeko ordua da](#)

[EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA] Gaur jakin dugu EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren aurkako ebazpena eman duela.

Kazetaritza Euskaraz diploma sortu dute EEPk eta zenbait unibertsitatek elkarlanean

[BERRIA] Euskararen Erakunde Publikoak, Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bordeleko Unibertsitatearen barruko Bordele-Akitania Kazetaritza Institutuak lankidetzan hitzarmena sinatu dute gaur Baionan, Kazetaritza Euskaraz...

Ez adiorik, 'Mixu' - Bea Salaberri

[ARGIA] Aitzineko hil amaieran joan zen gure artetik Mixel Oronoz apaiz-langile eta euskaltzalea. Berak nahi bezala joan zen oin puntetan, diskretuki, ez zuen dohaike goraipamenik nahi izan, alta ontsa merezituak zituzkeelarik.